

Erabaki da : Intzagarai jaunak bildu ditzala Agiré zanaren idazti lan berezi batzuek, ta abek argitaratzea, zerbait diru emanik, Agiré'ren senideari, jabetasunaren ordainbidez.

3. Bähr jaunari joan dan udaraldiko bere euskalanagatik zer sari eman lekioken autua jo da. Ikusten danez, bere eralketak 489,60 peseta izan dira. Euskaltzain batzuek diote, Bähr jaunak, eralketa ta bere lan ordain, 650 peseta artu lezazkikela ta geiago ez noski, Euskaltzaindiaren bekaduna dalako.

4. Altube jaunak oarbide luze ta mamitsu bat dakar, Azkue jaunaren *Morfologia*'ri zerbaitetan ere erantzuteko. Gogoz entzun dute euskaltzain jaun guziak, batez ere *acento*-ri dagokion zafi edera. Lan onek zer ikusi asko duelako Azkue'ren Morfologia-rekin gure aldizkari *Euskerá*'n argitaratuko da.

5. Olabide jaunak, esku-idazti batetik artu-ta, Iruña aldeko erderari ezarita dabiltzan euskal-itz askoren zerenda irakuri digu.

Lan polit eta txalogaia da. *Revista Internacional* en argitaratuko da.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzita otoi-tzez amaitu da batzaraldi au.

---

**Bilbo 'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1925 'ko  
Epaia 'ren 27 'an.**

Auruko batzaraldian aipatzen diran euskaltzain berak biltzen dira eta urgazletatik batez.

1. Azkue jaunak bere *Morfologia* amaitu ta orain bere lan ederaren argibidea dakarkigu. Argibide orek lenbizi euskal idazleen leño agiria dakar euskal-idazle beri batzuek emanik. Gero gaien leñoa dator. Batzaraldiaren asti gejena irakurpen onek eraman digu.

2. Bilbo'ko Udal-aren euskal-irakasleen azterkari ta epaile izateko, garaia danean, Euskaltzaindiak Altube, Eguskitza ta Azkue izendatu ditu.

3. Etxegarai jaunari esan bear zaio bere euskaltzain-saferako itzaldiaren agiritxo bat Eguskitza jaunari biali dezaiola.

Ta beste gairik izan ezda otoitzez bukatu da batzaraldia.

---

### **Donostia 'n, Gipuzkoa 'ko Aldundi-Jauregian, 1925 'ko Yoñaila 'ren 27 'an.**

Batzaraldira euskaltzain abek datoz : Azkue maipuru, Kanpion, Urkijo, Landeñetxe, Eguskitza, Olabide, Altube, Intzagarai, Intza ta Lakonbe. Araudi-otoitza egin da.

1. Urkijo jaunak esaten digu : Juan Karlos Geña jauna autatu bear litzakela Euskaltzaindiko urgazle izateko, edozeñek daki-ta, jaun onek euskeraren alde lan asko egiten duela, batez ere oraingo txandan, antziñako euskal-neurtitzak argitaraturik.

Euskaltzaindiak pozik aukerutzen du Juan Karlos Geña jauna bere urgazletzat ta auxe ori iragari bear zaio.